

7. GAIA.- UDA KANPAINA. IZENA EMATEKO ARAUTEGIA

Uda 2018 Kanpainako datuak

LEHENENGO FASEA: Aurretiko izen-emateak eta zozketa.

1.- AURRETIKO IZEN-EMATEAK. Maiatzaren 7tik 10era (biak barne).

Bi modu ezberdinetan egin ahal izango dira:

- **Internet bidez: Elkarte guztiak www.donostiakirola.eus web orrian.**
- Presentziala: Kluben bulegoetan eta bere jarduerentzat (www.donostiakirola.eus kontsultatu)

BANAKAKO AURRETIKO IZEN-EMATEA: Ikastaro berean pertsona bakoitzeko izen-emate bakarra onartuko da.

TALDEKO AURRETIKO IZEN-EMATEA: Ikastaro berean gehienez lau lagun onartuko dira. Modalitate honetan zozketaren emaitzak aurretik izena eman duten pertsona guztiak lotzen ditu.

Guztira, pertsona bakoitzak gehienez 4 aurretiko izen-emate egin ahal izango ditu.

2.- ZOZKETA ETA EMAITZAREN JAKINARAZPENA. Maiatzaren 11n.

Aurretiko izen-emateen zozketaren behin-behineko esleipena burutuko da. Donostia Kirolak zozketaren emaitza posta elektronikoan edo SMS-en bidez jakinaraziko du eta www.donostiakirola.eus web orrian ere kontsultatu ahal izango da.

3.- ORDAINKETA ETA PLAZEN BERRESPENA. Maiatzaren 14tik 17ra (biak barne).

Ikastaroen **ordainketa egiten denean**, plazak **berretsiak izango** dira.

Ikastaroaren ordainketa ez egiteak, zozketan esleitutako plaza galtzea suposatuko du.

Ordainketa bi modutara egin ahalko da:

- 1. Interneten Bidez: Erakunde guztiak www.donostiakirola.eus web orrian.**
- 2. Presentziala:** Kluben bulegoetan eta bere jarduerentzat (www.donostiakirola.eus kontsultatu)

Gogoratu: Ikastaroen internet bidezko ordainketa epea, maiatzaren 17an amaituko da arratsaldeko 20:00etan.

Aurretiko izen-ematea **aldatu** edo **ezabatzeko** eta ikastaroen **ordainketa** burutu egin ahal izateko, Donostia Kirolak bidaliko duen **KODE IDENTIFIKATZAILEA** erabiltzea ezinbestekoa izango da. Kodea posta elektronikoa bidez bidaliko du, aurretiko izen-ematea internet bidez egiten duten pertsoneri. Klubetan presentzialki edo posta elektronikoa adierazi ez dutenei, kodea SMS-en bidez bidaliko zaie.

Oharra. Prozesua bukatu arte kode identifikatzaile hori gordetzea ezinbestekoa da.

BIGARREN FASEA

Zozketa egin ondoren libre gelditzen diren plazetarako IZEN-EMATEAK:

IZEN-EMATEEN HASIERA: maiatzaren 28an.

Izen-emateak egiteko bi bide egongo dira:

1. Interneten bidez (goizeko 9:00etatik aurrera): www.donostiakirola.eus web orrian:

2. Presentziala: Klub bakoitzak jarritako ordutegian

Izen-emateak ezeztatzeko eta diruaren itzulpena eskatzeko: edozein izen-emate ezeztatu eta diru itzulpena eskatzeko, ekintza burutzeko ardura duen KLUBarengana jo beharko da. Ordainketaren itzulpena eskatu ahal izango da, gutxienez, jarduera hasi baino 21 egun lehenago.